



RASFFEREN 2007KO URTEKO
LABURPENA- GIZA ELIKADURA

elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria


Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

JAKINARAZPENETAN IDENTIFIKATURIKO ARRISKUAK


2007. urtean, Europako Informazio Azkarreko Sistemaren (RASFF) bidez jasotako alertak eta jakinarazpenak ugaritu egin dira, guztira **2764** jaso dira.

Aurreko urteetan bezala, mikotoxinek eragin dituzte jakinarazpen gehien, nahiz eta murrizten jarraitzen duten. Aurten, kutsadura biologikoa izan da jakinarazpen gehien sortu dituen bigarren taldea.


Jarraian azalduko ditugu identifikatutako arriskuei dagozkien portzentajeak eta nolako bilakaera izan duten lauhilekoka:



Arriskuek izandako joerak hiru lauhilekoetan zehar honako hauek izan ziren:




Identifikaturiko arriskuen **urteko batez bestekoa** honako hau da:




MIKOTOXINEK eragindako kutsadurari dagokionez, kasu gehienak (% 89,5) **Aflatoxinek** eragin dituzte. Eta, horrelakoetan, kakahueteek kutsaduren % 25 eragin dute. Horren ondotik, pistatxoa dugu (% 24,5). Pistatxo gehienak (% 79) Iranekoak izan dira. Kakahueteak, aldiz, % 33 Txinakoak izan dira.


Hona hemen aflatoxinek eragindako jakinarazpenek 2007. urtean izan duten bilakaera:




KUTSADURA KIMIKOARI dagokionez, jakinarazpenen % **20** izan dira. **Koloragarriek eta gehigarriak** alerten eta jakinarazpenen % **48 eragin dituzte**. Talde horren barruan gozokiak, ozpinkiak eta elikagai gehigarriak ditugu eta denek izan dituzte antzeko portzentajeak. Era berean, **benzopirenoen taldea** azpimarratu behar dugu; jakinarazpen gehien sorrarazi duen bigarren taldea izan da eta urtean zehar bikoiztu egin dira jakinarazpen horiek. Horrelakoetan produkturik garrantzitsuenak ondoko hauek izan dira: arraina oliotan eta arrain ketuak.




KUTSADURA BIOLOGIKOARI dagokionez, jakinarazpenen % **21** izan dira, eta talde honetan **Salmonella sp.** nabarmendu behar dugu, kutsadura biologikoen % **40 eragin baitu** (urteko batez bestekoa). Eta produkturik kaltetuenak ondoko hauek izan dira: **haragia eta haragizko produktuak (% 42)**.



Badira salmonella espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* eta *S.enteritidis*); baina, horiez gain, badira bestelako salmonella espezie batzuk. Horien artean salmonella exotikoak nabarmendu behar ditugu (% 81,5). Horien ondoren, *S.typhimurium* (% 11) eta *S.enteritidis* (% 7,5) azpimarratu behar dugu. Produktu kaltetuei dagokienez, *S.enteritidisek* arrautzei eta oilasko-haragiari eragin die bereziki (kasuen % 89). Kasu gehienetan, % 87, Europako produktuak izan dira. *S.typhimuriumek*, aldiz, txerri-haragiari eragin dio (kasuen % 52,5). Haragi guztia Europakoa izan da.




Bestalde, METAL ASTUNAK ere aipatu behar ditugu, merkurioa bereziki. Izan ere, murriztu egin da lehenengo lauhilekotik (kasuen % 63) azken lauhilekora (kasuen % 48). Batez ere marrazoari eta ezpata arrainari eragin die (% 74,5).




IDENTIFIKATURIKO ARRISKUEN JATORRIKO HERRIALDEAK

Identifikaturiko arriskuaren jatorriko herrialdeei dagokienez, nabarmendu behar dugu, urtean zehar, Asiakoak (% 41,5) eta Europakoak (% 37) izan direla jakinarazpen gehienak.



2006 - 2007 URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken bi urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak ugartu egin dira zertxobait, 2006. urtean 2409 jaso ziren; eta 2007. urtean, aldiz, 2764. Hainbat aldaketa gorabehera, oro har antzeko joerak antzeman dira. Kutsadura kimikoak sorraraziriko jakinarazpenak murriztu egin dira progresiboki.



Gehien antzeman diren kutsadura eragileei erreparatzen badiegu, konturatuko gara kasu

gehienetan aurreko urteko portzentajeari eutsi zaiola:

